

KANALAK

Gure enpresak edukiko dituen salmenta kanalak bi izango dira, ondorengoak:

- Kanal zuzena: Internet bidezko salmenta, non mundu osoko leku guztietatik denda eskaintzen ditugun produktuak ikusi eta erosteko aukera izango lukete
- Zeharkako kanala: Denda bateko salerosketa bidez

Internet bidezko salmentaren hasierako helburua gure produktua Goierri osora iristea izango litzateke, eta pixkanaka mundu osora zabaltzea. Hemen beste denda batean dauden baliabide berdinak ditugula pentsatu arren, gure ezaugarriak ezberdinak dira. Izan ere gure inguruko merkatua bultzatzea dugu helburu eta materiala inguruko enpresei erosteaz gain, bereziki inguruko herritarrei zuzenduriko zerbitzua litzateke.

Dendaren funtzioa, dagoen lekuan ospea lortzea izango litzateke, marka edo enpresa ezagutaraztea eta zabaltzea. Hemen apika bariedade gutxiago egon daiteke baina momentuan erosi dezakezu internet bidez eta gainera arropa denda bertan probatu.

Bi metodoak erabiltzeko aukera edukiko genuke, bezero bakoitzari bere beharretara hobekien egokitzen zaiona aukeratzeko aukera izango lukelarik.